

Gabon-Subiletan

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2013ko sari leiaketa. Irugarren saria

Beiñola, Arratia gaiñeko Dima parteko Lamindao auzunean alosoko etxagun bat bizi zan. Baserría Petralandako landa zautuan eukan, aldi baten akelarreak egiten ebezan landa ospetsuari deutsala.

Neguko solstizioaren aurretuan, Dimoztar etxagun ori eta bere iloba subilarorako gabon-subiletan joan ziran Baltzola aldera San Juan egunean jaiotako idi pareá buztarrian dala.

Baltzola eta Axlor kobazuboen ingurumarira eldu ziranean piperdi egiñaz atsedentxo bat artu eben dentil-Zubi izenez ezagutzen dan berezko aitz-zubiaren eguzkibegian.

Orretara, iloba gaztelok beste batzuen artean auxe itaun au egin eutsan aitaitari:

-Aitaita, gaur zergaitik buztartu dozun baiño ez da San Juan egunean jaiotako idi pare au, obeak ere badituzu eta gortan!

-Badaezpada!,- erantzun eutsan aititak-.

-Zer ba?

-Zer ba, diñostazu? Ez dakizu ala? Ara, kontatu egingo deutsut bein parajeonetan zer gertatu ei jakien gure arbasoei.

"Au gure Lamindaoko eleiza au antziñakoa dogu eta nik neuk entzunda daukadanez, arazoak gertatu ei ziran egikeran.

Dimako Lamindaotarrak asi ziran eleiza nagusi au egiten, Petralandako landari deutsala eta esaten ibili natxatzun lez, ba, kristavek egunez egiten ebezan arri-bearrak, gavez, baten batzuek lekuz aldatzen eutseezan.

Orrela ibili ei ziran luzaroan eta ezin eben gauza onik egin. Baltzolako jentilen susmoa eukien, jakiña, aiek ez ebeleko eleizarik gura.

Luzaroan ibili eta gero trebitu orretan, ebatzi bat artu eben Lamindaotarrek, zein? eta gavean baten batek sorots egitea, ia nor edo nortzuk diran jakiteko gauetako zerok, lapur mantzinok.



Orrelaxe egin ei eben. Lamindaoztar bat arduratu zan gortako leioetariko batetik sorots egiten.

Gauero lez, jentilak agertu ziran Lamindaoko eleizako obrara eta kristauvek egunez egiñeko guztia apurtu eta dentil-zubi onen ingurumari-
ra ekarri ei ebezan orma-arri eta gaiñetikook.

Baiña, sorosten egoanaren leiopetik pasatu ziranean jentilok, kontu-
ratu egin ziran eta maldizioa bota ei eutsoen esanez: "Orri, sorots egiten
dagoan orri aurpegiko leioa itxiko baliako (balitzakio)".

Eta urrengo egunean, a sorosten egoana begi bat galduta agertu ei
zan, tuerto, eta areixek jentilak izango ziran, nor osterantzean?

Lamindaoztarrek ori ikusi ebenean, argudioz, kurutze bat jarri eben
eleiza barria egiten egozan tokian eta orrelaxe lortu ei eben gavezko
jentilok uxatu eta eleiza ederra egitea".

-Ez da izango egia, aitaita?- esan eutsan ikaratuta ilobak.

Ara ilobatxo maitea, egia ala guzurra ez dakit baina entzun alaxe
daukat entzunda eta nik neuk, badaezpada, kristauaroan bertan
ere Gabon-subila San Juan egunean jaiotako idi pareagaz eroa-
ten dot. Gaur egun ere, onek dentil-Zubi onek gorputzean pipila-
durea ateraten deust, zer dan orregatiño bildursartua e?

-Aitaita, lasaitu zaitetz, -esan eutsan ilobak siñisgaitz
iterantzunak aotik askatuz-, orreik siñiskerok
antzinako kontuak baiño ez dozuz eta. Emen
ez dago jentilik ez jentilondokorik!

-Ezetz? Badiranik ez ei da siñistu bear
baina ez diranik ere ez ei da esan bear
gero! Aditu ondo dentil-Zubi onen esaunda,
niri neuri aita defuntuak kontatua:

"Beiñola, Baltzolako kobazuloan bizi ei zi-
ran jentilak eta indartsuak ziranez aitzean
bertan asi ei ziren zubiginen, gaur egun
berezkoa dala esaten dogun au berberau,
baiña ezin ei eben amaitu euren zubigin-
tza Lamindaoko eleizako kanpaia entzun ei
ebelako. Kristauaroko kanpaiotsak podere
barik itxi eta uxatu egin ei ebazan jentilok
Baltzolako dentil-Zubi au guztiz egin-aka-
batu barik geratu zalarik. Egia edo guzurra,
zeozer izango da, emen daukagu eta!"

Tira, atsedan eta kontuok kontatu ondo-
ren euren bearrari ekin eutsoen aitaita-ilobok.

Urte orretako Gabon-subiletarako aitai-
tak aurrezidik begizatuta eukan inizituak edo
errekatzak jotako aritz erdi igartu bat eta
orrela ez eukan aritz garrazta sendo eta zin-
do bat ipurditik bota bearririk.



Trontza artu eta aitaita-ilobok biak bietara zirrin-zarran bota eben aritz erdi sikatu ori. Erramak kendu eta gero ipurdi aldetik arandela eta guztizko burdina-ziri luze bat sartu eutsoen artarako mailu bereziaz lagunduta. Gero, idi parearen buztarriko burtederik arako katea sartu ziriaren arandelatik eta narraz eroan eben Lamindaora bidean aitaita aurretik eta iloba atzerik ara zirala.

Etxera bidea ez zan luzea baiña garai orretako gauak bereala etorten diranez, ia-ia gautu egin jakien eta Petralandako landapetik joiazala, berbarots berezi bat entzun eben, zer? eta auxe:

"Gaua gauzkoentzat eta eguna egunezkoentzaaaaaaat!"

Aitaitak, bere ilobari eskutik oratuta badiotso ba ze:


-Zer Jaungoiko ete gagoz entzuten? Gure arbasoen garaian ba ei egozan jentilak edo parte txarrekoak, baiña orain, kristauaroan zer dan baiño ez da berbarots au? Gaueko arimak ez badira gero? Eta birritan pentsatu barik badiño aitaitak, eta idartsu esan ere:

-"Nortzuk zareen beist, ez zaitzeze urreratu estadio pare batetik onago. Zer ofrezitzen jatzuen jakin daiteke?"

-Ez bildurtu, gu gauko arimak gara eta emen gabilz zeruan sartu ezinik arik eta bizitzako ondo egin ezak betatu arte!

-Oño! Eta zer itxi dozue ba bete barik?-iñoan aitaitak-

-Ba ara! Gu andra-gizonak gara, bigarren ezkontzakoak, alargundu egin giñan bakoitzak iruna seme-alaba geunkazala eta gero bigarrenez ezkondu eta beste lau orpogorri izan doguz, alosoko etxekada. Gosea ez baiña ez-edukia ugari ikusi dogu bizitzan, bartzuetan senperrak sufritu ere bai eta aurreratzen joan garan diru apurra gorde egiten izan dugu estariko abe-zulo baten badaezpada baterako. Eta zoritxarreko egun baten, perretxikotan joan giñan orra goietako pagadira eta onak ziralakotan jan eta akordatzakoan il ez giñan egin ba? Eta, jakiña, aurreratutako diruak, amaseiko gorriak zeatzago esanda, seme-alabei non gordetzen genduzan esan barik il ginanez, ezin gara sartu zeruan. Dirua ezlekuan dago, errotaren andapara ondo aritzezko zutabeen, ukabilez ta-ta-ta egiñez gero arro-otsa barruntatzen dan lekuan. Mesedez diruok non gorde genduzan parte emongo bazeuntsee gure seme-alaba errukarriei!



-Obeto ez!- erantzun eben aitaita-ilobak biak batera-, biarrera itxaron barik, gabon-subil au etxera eroanagaz batera egingo jatzue gurari ori. Baiña zein etxaguntzatar joan bear dogu?

Ba, aiko, gu urlia eta urlia gaituzue eta Gorbeia doan mandabide eta laminerreka deritzon erreka ertzeko errotan bizi giñan eta an ibiliko jatzuez gure umezurtzak aalax egiten bizimodua aurrera eroateko. Mesede ori egiten badeuskuzue barriro agertuko gatxatzuez eskerrak emoteko, ementxe, Lamindaoko eleizportikuan Gabon gaueko meza ostean inork ikusi ez gaigizan.

Entzun eta egin. Aitaita-ilobok, idiak aidatu eta zuzian eldu ziran euren etxaguntzara. Idiok buztarritik askatu, Gabon-subila itaxurepeko legorreetan ipiñi, soiñekoz aldatu, artu mando gorri bana eta tipi-tapa abiatu ziran euren zeregin misterioztara iñori berberdi ere esan barik.

Errota aretara eldu eta ateak jo ebezanean, ikaratu egin ziren errotari gazteok eta:

-Nor da?- galdetu eban semerik zaarrenak-.

-Geu gara, bakez gatoz eta zabaldu ateak bildur barik!


Ateak zabaldu eutsezan eta fetura onean etozala ikustean barrura sartzeko eskatu eutsen. Orretara aitaitak esan eutsan ba ze:

-Ara, gazte, onantxe eta onantxe eta auxe eta auxe gertatu jaku Petralandako landapetik gentozala.

-Egia ez da izango?- erantzun eutsen errotari zaarrenak-, goazen ia ezleku ori ikustera.

Joan ziran eta efetibamente, arro-otsa barruntatu eben parte-ko ool zati biribila kendu ebenean, ene! antxe egozan diruok, alosoko piloa egon ere, amaseiko gorriak, urrezuri edo zilarrezko ogerlekoak eta gaiñetikoak.

Tristuraren barruan poza agertu jakien errotako umezurtz guztiei eta esker ona adierazteko urun zorro bi oparitu eutseezan, bata gari-urunezkoa, ogi, pamitxa, ai eta abarretarako eta bestea arto-urunezkoa, arto, opil, talo, morokil eta gaiñetikoetarako Aitaita-ilobok, etxera bueltatu ziran euren mandogorri gaiñean urun zorro eta guzti, eta isilean gorde eben euren aronako berezia, zein jendea adi itxi.





Andik iru egunera Gabon eguna eldu zan eta oitura zan legez, Gabon-subila prestatu eban aitaitak, Baltzolatik ekarritako aritzaren zatirik egokiena aukeratuz.

Gabon Gaueko afari aurretixuan, aitaitak, supazterrera eroan eban Gabon-subila, aitearen egin, zati bat ebagi aizkoraz eta artegi edo gortako orma-zuloan gorde eban etxea eta ganaduak zaintzeko. Gero Gabon-subila Gabon-zuzi egin aala, bere ikatz edo iduri apur bat ganbarako abe zuloan gorde eban etxea erre ez egiteko erremedio gisa.

Bajoian joan Gabon afaria aurrera baiña gure aitaita urduri baegoan, iloba artegago, estu eta larria-ia kakadario, gerokoari begira eta orretara esan eutsan aitaitak:

-Nasai egon adi, Gabon Gaueko oilar-meza ostean ni neu konponduko nok arimokaz, abadeagaz berbatuta niagok eta.

Alaxe egin eban. Meza aurretik abadearen aolkak entzun, Lamindaoko eleizako Gauerdiko meza entzun eta auzokideak etxeratu ziranean, bera eleizportikuan geratu zan abadea ere zain eukalarik badaezpada ur bedeinkatu eta guzti.

Isiltasun eta iluntasun aretan atibo agertu ziran andra-gizon arimok eta:

-Eta zer? Egin deuskuzu mesede ori?

-Bai orixe, eta gaiñeko poza zabaldu zuenean!

-Tira ba, orain bai, orain bai, orain sartu geintez zeruan. Eutsiz gure esku-bostekoak!

Aitaitak, abadeak esanda ekienez, esku biak luzatu eutsezan, bata batari eta bestea besteari baiña Gabon gauean irun eta eundutako lino-zapi bat esku banatan dala. Abadeak berak ere, "In nomine Patris..." bedeinkatu egin ebazan eta zerurako bidea artu eben.

Natibete goizean, aitaitak bere ilobari dana kontatu eta lino zapiak erakutsi eutsazanean, zer? eta enel zapiotan bost atzamarren erre-markak ez zirenba agertu? Egia edo guzurra, kontatu orixe egingen da. Siñistu nork? Batek badaki!

EUSKITZ

Juan Manuel Etxebarria